


MI LLANTO

Aquella sonrisa del labrador
 es semejante a mi llanto
 encendida memoria y
 dulzura pétrea,
 es un pacto sombrío entre el mutismo y
 el deseo de querer expresarse,
 una constante costura entre el apego a las raíces y
 el horizonte,
 un herrumbroso clavo soñador
 las herradura que cede,
 una cuerda con nudos de garganta
 la columna vertebral del vareado árbol,
 vacunado por el dolor y
 lleno de sollozos,
 terco y
 sensible,
 es humillante vergüenza
 difícil de acariciar,
 protegido por la altiva nieve y
 obligado a permanecer en pie,
 con la estructura de la robusta soledad
 es la camisa de trabajo hecha de sudor cuajado
 procedente de la verdad
 —del ojo de una cadena humana—,
 transporta la fuerza de los rosales
 que crecen salvajes desde el centro de la noche,
 es la sintaxis del idioma marginado y amado,
 el ciego vigor del caballo indomable o
 el obstinado remo que no puede resignarse en el mar embra-
 / vecido

NIRE NEGARRA

Irribarre baserritar hura / nire negarraren antzekoa da / oroimen
 bizikoa eta / ezitasun harrizkoa, / mututasun mardularen eta / adierazi
 nahi denaren arteko itun laiotza, / sustraiekiko atxikimenduaren eta /
 ortzemugaren arteko joscura iraunkorra, / amets egiten duen iltze
 herdoildua eta / amore ematen duen ferra, / eztarri-korapiloez eginiko
 soka eta / zuhaitz zartakatuaren bizkarrezurra. / minez txertatua eta /
 zotinez betea, / buru gogorrekoa eta / bihotz bigunekoa, / lotsa
 gorrikoa eta / zintzo-latza laztantzekoa, / elur goiak babestua eta /
 zutik egon erazia, / bakardade gotorraren egiturakoa eta / izerdi
 gaztanberazko lanerako atorra / egiaren sokatik / —giza-kate baten
 kate-begi batetik datorrena, / gauminean baimenik gabe hazi ohi diren
 / larrosazko hesien indar eutsia darama, / baztertutako hizkuntza
 maitatuaren sintaxiarena, / zaldi hezigaitzaren kemen itsua edo /
 itsaso haserrean etsitzerik ez duen arraun setatiarena



*Dentro de la estructura ósea del eco
 en tensa espera
 ensayan y
 resucitan
 abrazados al obsesivo río
 los rostros cueva
 — infiernos celestes
 repetidos de edad en edad y
 atravesados por ritos ancestrales,
 cálices alados
 de suave caída,
 arcas llenas de tesoros
 inmoladas y celebradas
 en una intimidad de piedra,
 donde los corazones verdes y oscuros
 se refugian en inaccesibles montañas
 y las pesadillas atávicas se adueñan
 de forma angélica de las gargantas.*

Oihartzunezko hezurduran / bere egote zelatarian / entseiatzen ari /
 esna—erazten ari ziren / aurpegi kobazuloak / barne ibaiaz
 besarkaturik / — aroz aro errepikatutako eta / errito izkutuek
 zeharkatutako / infernu zerutiarrak, / erori leuneko hegoak /
 daramatzaten kalizak, / altxorrez jositako kutxa itxiak / oparigintzaren
 ospakizunean bilduak / etxekoitasun harkaiztuan, / non bihotz berde
 eta ilunak / mendi helgaitzetan gordetzen diren / eta amesgaizto
 atabikoak aingeru itxuran / eztarri arroiletaz jabetzen—